

www.apdema.org

2022KO JARDUEREN MEMORIA



APDEMA

ASOCIACION A FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL DE ALAVA
ADIMEN-EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ARABAKO ELKARTEA

— 2022KO —

**JARDUEREN
MEMORIA**

The graphic consists of a central black rectangular frame. At the top center, the text '2022KO' is written in a bold, orange, sans-serif font. Below it, the words 'JARDUEREN' and 'MEMORIA' are stacked in a bold, black, sans-serif font. The frame is decorated with four colored bars: a green bar on the top left, a red bar on the top right, a blue bar on the bottom left, and a yellow bar on the right side.

AURKIBIDEA

ELKARTEA

Misioa	3
Ikuspegia	3
Balioak	4
Batzar Nagusia	4
Zuzendaritza Batzordea	5
Bazkideen mugimendua	5
Ekonomia	6
2022 zenbakitan	7
2022ko jarduketa nagusiak	8

ELKARTE-ZERBITZUAK

Familiei laguntzeko zerbitzuak	9
Prestakuntza eta zabalkundea	10
Apdemaren batzordeak	10
Komunikazioa	12

ETXEBIZITZA-ZERBITZUA

Baliabideak	14
Talde-etxeak	14
Egonaldi laburrak	14
Atsedendaldiprograma	15
AVI programa	15

AISIALDIKO ETA PARTAIDETZA SOZIALEKO ZERBITZUA

Aisialdiko zentroak eta programak	18
Opor programa	18
Bidaieen programa	18
Kirol programa	19
Boluntarioak	19
Irakurketa Errazeko Kluba	19
Autokudeaketa programa	19

ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZUAK

Arreta zuzena	21
Familia laguntza	23
Koordinazioa	23
Prestakuntza eta partaidetza soziala	23

AURKEZPENA

Familia estimatuak:

Lehenik eta behin, esan nahi dizuet pozik nagoela zuei guztioi eskerrak eman ahal dizkizuedalako, neure eta Zuzendaritza Batzorde osoaren izenean, elkarteari bere kudeaketaren garapenean ematen diozuen laguntzagatik.

Hurrengo orrialdeetan, APDEMA elkartearen 2022ko jardueren memoria aurkezten dizuet, xehetasun handiz. Jarduera horiek Elkartearekin aktiboki lan egiten duten erakunde, entitate eta enpresen laguntza izan dute, eta benetan eskertzen diegu egindako ekarpena.

2022ko ekitaldia, zorionez, normaltasun osoz garatu ahal izan da, pandemiak eragindako babes-neurrien ondorioz aurreko bi urteetan gertatutako gorabeheren ondoren. Pandemiak gure bizitzak baldintzatu baitu iragan hurbilean.

Era berean, 2022an, elkarte sortu zenetik 60 urte bete direla ospatu dugu. Hainbat ekitaldi eta jarduera egin dira, eta APDEMAko bazkide eta erabiltzaile askok parte hartu dute, horiek eragin publiko eta sozial handia izan dutelarik.

Memorian hobeto zehazten badira ere, 2022an abian jarri edo finkatu diren proiektu berritzaile batzuk nabarmendu nahi ditut hemen, besteak beste: Zahartze Aktiboko programa, Emakume Ahots Propiodunak proiektua, adineko pertsonentzako "Solyedad" programa, Dis-kultura Gazteak ON Modua programa gazteentzat, eta desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako oposizio-azterketak prestatzeko LEP Irisgarrien proiektua, horietako batzuk Funtzio Publikoan ofizialki sartzeko emaitza praktikoekin.

2023ko urte honetan, Zuzendaritza Batzordeak programa horien kalitatea hobetzen jarraituko du, Elkartearen egitura organikoaren osatzen duen profesional-talde bikainaren lan ordainezinarekin. Era berean, ahal den neurrian, erronka berriei ekingo zaie gure zerbitzuen erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzeko.

Zuen babesa izaten jarraitzea espero dugu, eta ekitaldi eta ekimenetan parte hartzera eta laguntzera animatzen zaituztegu, estatutuetan edo interes orokor edo partikularrengatik horretarako deialdia egiten bazaizue.

Horregatik guztiagatik eskerrak emanez, zuen esanetara naukazue, eta agur bero bat.

Carlos Errasti Murguiondo. APDEMAko batzordeburua

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Batzordeburua:

Carlos Errasti Murguiondo jn.

Batzordeburuordea:

María Angeles Gamarra Mayor Martínez and.

Idazkaria:

Aitor Olabe Beobide jn.

Diruzaina:

José Antonio Amurrio Urraca jn.

Batzordekideak:

Mercedes García López and.
María Mercedes Oraá Pérez and.
María Rosario Bueno Chandro and.
María Carmen Loreto Carranza Hernández and.
María Angeles Deza Carrillo and.
José Luis Lajas Izquierdo jn.
María Consuelo Sáez Palma and.
María Blanca Sáenz de Urturi Sáenz de Urturi and.

ORGANIGRAMA

Batzar Nagusia	Zuzendaritza Batzordea	Zuzendaritza	
Administrazioa Idazkaritza			
Batzordeak Okupazionalak - Enplegua - Erabiltzaileak - Adinekoak			
Etxebizitzak	Asoziatiboak	Aisia eta partaidetza soziala	Arreta Goiztiarra
Talde-etxeak	Familien arreta	Zentroak	Esku-hartzea
Batzarrak	Harrera	Gasteiz	Estimulazio orokorra
Mariturri	Jarraipena	Amurrio	Fisioterapia
Oion	Artatugabeak	Laudio	Logopedia
Laudio	Zeharkako programak	Programak	Familia laguntza
Zapardiel	Prestakuntza	Aisia Arabar Errioxan programa	
Sarazibar	Komunikazioa	Opor programa	
Foronda	Etorbizunerako prestakuntza	Bidaieen programa	
Urbasa	Zahartzea	Kirol programa	
Easo	Enplegurako trebetasunak	Boluntarioak	
Amurrio		Autokudeaketa programa	
Las Losas		Irakurketa Errazeko Klubak	
Programak		Inklusioa jarduera komuntarioetan	
AVI			
Atsedenaldia			

2022KO

JARDUEREN
MEMORIA

ELKARTEA



Gure fundazioa, 1962tik, Apdema Arabako desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten duen elkarte bat gara, pertsona horien autodeterminazioa eta gizarteratzea lortzeko. Parte-hartzera eta bizikidetzara irekita dauden eta arreta, prestakuntza eta gizarte-sentsibilizazioarekin konprometituta dauden pertsonak osatzen dute Apdema. Elkartutako 1.200 familia inguru bazkide numerario eta laguntzaileen artean banatzen dira. Irabazi-asmorik gabeko elkarte bat gara, eta onura publikokotzat aitortu zen 1971n.

Betidanik erreferente izan gara desgaitasun intelektuala duten pertsonen eskubideen defentsan eta gizarteratzean. Gure jarduera eta aintzatespen garrantzitsuenen artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu: Adimen Urrikoen Aldeko Elkarten Espainiako Federazioaren (FEAPS) sorreran bazkide fundatzaile gisa parte hartu izana (gaur egun, Erabateko Inklusioa), Eusko Jaurlaritzak 1991n Euskadin Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko erakunde gisa emandako SUSTATU Saria eta Arabako Foru Aldundiaren Arabako Domina, 1994an, gure giza eta gizarte lanarengatik.

Misioa

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea.

Ikuspegi

Etorkizun desiragarria ingurune osasungarriak, eskuragarriak eta bateragarriak eraikitzean oinarritzen da, desgaitasun intelektuala duten pertsonen autodeterminaziotik eta inklusiotik abiatuta.

Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarte bat gara. APDEMA 1962. urtean sortu zuten Arabako gurasoek. Gure misioa da adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien bizi-kalitatea hobetzea.

Honako hauek dira gure elkartearen balio nagusiak: justizia, kalitatea, goxotasuna, unibertsaltasuna eta parte-hartzea. APDEMAK 2 bazkide mota ditu: familiak eta kolaboratzaileak. 2021ean, 700tik gora familia eta ia 500 kolaboratzaile ditu elkarteak.

ELKARTEA

Horretarako:

Elkartea da Arabako ezinduen premietarako irtenbide-motaren buru da, eta honela egiten du:

- Titulartasun (erantzukizun) publikoko Kudeaketa Eredu Mistoarekin: itunpeko kudeaketa pribatua eta plangintza publikoaren mendekoa. Aldi berean zerbitzuak erabiltzen eta ematen dituen erakundea izanik.
- Gizarte-ordezkaritza handi eta zabalarekin.
- Desgaitasunari lotutako jardun-irizpide berritzaileak erabiliz.
- Familien lidergo soziala eta parte-hartze demokratiko asoziatiboa sustatuz.
- Bizi-kalitatearekin konprometitutako erakunde kualifikatu gisa, gaitasun teknikoak eta kalitateak legitimazio-iturriak osatzen dituztelako, desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien premiei irtenbideak emateko gaitasuna biderkatzen dutelako eta eraginkortasuna nabarmen hobetzen dutelako.

Balioak

Elkarreak bere gain hartzen ditu munduari, desgaitasun intelektuala duten pertsoneri eta haien familiei eta horiek inguruko ingurunearekin duten harremanari buruzko ikuspegi partekatu bati erantzuten dioten balioak. Honako hauek dira:

Elkartasuna	Kualifikazioa eta berrikuntza
Justizia	Eraginkortasuna
Kalitatea	Independentzia
Gardentasuna	Kooperazioa
Inguruarekiko elkar harremana	Kide izateko sentimendua
Bezeroarekiko orientazioa	Parte-hartzea

2022ko ohiko batzar nagusia

Apdemaren Ohiko Batzar Nagusia irailaren 28an egin zen, Gasteizko Vital Fundazioaren Gelan. 42 kide bertaratu ziren, Zuzendaritza Batzordeko kideak, zuzendari kudeatzailea, Giza Baliabideen zuzendaria, Aisialdiko eta Gizarte Partaidetzako zuzendaria eta APDEMAko beste teknikari batzuk. Bazkideen hiru boto ordezkatu ziren ziren, hirurak ere batzordeburuaren aldekoak.

Batzordeburuak bilera hasi zuen azalduz Batzarra irailan egiten zela, lankidetzeta-hitzarmenen likidazioak urteko lehen seihilekoan ez zeudenelako, eta horregatik atzeratu zela kontu-ikuskaritza.

Ondoren, aurreko akta irakurri eta onartu ondoren, idazkariak 2021eko jardueren memoria aurkeztu zuen, eta zuzendari-kudeatzaileari eman zion hitza, zeinak memoriaren ikus-entzunezko aurkezpena azaldu baitzuen. Horri buruz galdetuta, bertaratuak aho batez onartu zuten.

Jarraian, urtean zehar izandako bazkide-mugimendua azaldu zuen idazkariak. 2021eko ekitaldiaren amaierako bazkide numerarioak 725 izan ziren; bazkide laguntzaileak, berriz, 451.

Batzarrean jorratutako hurrengo gaia 2021eko ekitaldiko urteko kontuak izan ziren. Joseba Amurrio diruzainak xehetasunez azaldu zituen 2021eko ekitaldi ekonomikoaren balantzea eta emaitzen kontua. 2021eko kontuek 107,41 euroko emaitza negatiboa izan zuten, eta Arabako Foru Aldundiak 2020ko defizita estali zuten. Hori guztia azaldu ondoren, Batzarrak aho batez onartu zituen 2021eko kontuak.

Zuzendaritza Batzordea berritzeari dagokionez, idazkariak Zuzendaritza Batzordea berritzeko izendatutako hautagaiak aurkeztu zituen: M^a Ángeles DEZA (berrautatzea), Joseba AMURRIO (berrautatzea), Mercedes ORAA, Rosario BUENO eta José Luis LAJAS jaun-andreak. Ondoren, hitza eman zion karguen proposamena aurkeztu zuen batzordeburuari, hau da, M^a Ángeles GAMARRA MAYOR -BATZORDEBURUORDEA. Batzarrak aho batez onartu zuen proposamena, eta hautagaiak hautatu eta izendatu zituen.

Jarraian, 2022rako proiektuei ekin zitzaion. Batzordeburuak horien azalpen zehatza eman zien bertaratu ziren bazkideei. Hala, "SolyEdad" programa berriak

nabarmendu zituen, andimen-ezgatiasuna duten adineko pertsonen nahi gabeko bakardadeak saihesteko eta ezgatiasuna duten pertsonentzako berariazko prestakuntza, Estatuko Administrazio Orokorrerako eta Arabako Foru Aldundirako LEPetarako. Era berean, familiei prestakuntza ematea babes-neurriei buruzko legeria berriaren inguruan eta gure Elkartearen 60. urteurrena dela-eta egindako ekitaldien berri ematea. Diskultura gazteentzako programa laster jarriko dela martxan jakinarazi du. Batzarrak 2022rako proiektuak aho batez onartu zituen. Azken puntu gisa, 2022ko aurrekontu ekonomikoa aztertu zen, eta haren gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena diruzainak azaldu zuen. Adierazi zuenez, langile-gastuetarako aurrekontuaren zenbateko osoa % 4 inguru handitu da aurten. Kuotari dagokionez, 2022rako kuota 90 eurora igotzea proposatu zen. Batzarrak aho batez onartu zuen igoera hori.



2022ko ezohiko batzar nagusia

Aldez aurretik, Ezohiko Batzar Nagusia egin zen, Ohiko Batzarrera bertaratutako eta bertan eskuordetutako pertsona bereberekin. Batzordeburuak ezohiko deialdiaren arrazoia azaldu ondoren, hau da, estatutuetan aldaketa batzuk egiteko arrazoia azaldu ostean, aldaketa horiek zehaztu zituen, horien bitartez Elkarteko gobernu- eta administrazio-organoek bilerak egitea eta erabakiak hartzea erraztuko baita, edozein arrazoirengatik ezinezkoa denean edo horietara joateko eskubidea duten pertsonak aldi berean bertaratzea gomendagarria ez denean. Horretarako, Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordearen bilerak bideokonferentzia edo telefono-konferentzia anizkoitz bidez egitea proposatu zen. Hala, 22. artikulua (Ohiko Batzar Nagusia egitea) eta 34. artikulua (Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendua) aldatzea proposatu zen. Aldaketa horretan, testua hizkuntza inklusibora egokitzea ere jasotzen da. Ezohiko Batzarrak aho batez onartu zituen estatutu berriak.

Zuzendaritza batzordea

Bazkideen Batzar Nagusiak, APDEMAren organo erabakitzaile gorena denak, Zuzendaritza Batzordeari agintzen dio gure elkartearen egunerokotasuneko gai garrantzitsuenak kudeatzeko. 2022ko ekitaldian, kideek ohiko hamaika bilera eta ezohiko bi egin zituzten.

Bazkideen mugimendua

2022ko hasieran 725 bazkide numerario eta 451 laguntzaile zeuden erregistratuta. Urtean zehar bazkide numerarioen 24 alta eta 37 baja izan dira, baita laguntzaileen 10 alta eta 23 baja ere. Hala, 2022ko abenduaren 31n, 1.150 familia elkartuk osatzen zuten APDEMA. Horietatik 712 bazkide numerarioak dira, eta 438 lankide gisa laguntza eskuzabal eta baliotsua ematen jarraitzen dute.

725 Bazkideak	451 Lankideak	712 Bazkideak	438 Lankideak
2021		2022	

ELKARTEA

Ekonomia —

APDEMAk, 2022an, lau lankidetzeta-hitzarmen sinatu ditu Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin: Etxebizitza, Aisia eta Gizarte Partaidetza, Arreta Goiztiar eta Elkarte Jardueren Zerbitzuen arlokoak.

Txosten hau ixteko unean, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen likidazioaren zain, behin-behineko emaitza ekonomikoek defizit txiki bat erakusten dute Elkarte Jardueren hitzarmenean. Arreta goiztiararen, etxebizitzaren eta aisialdiaren hitzarmenak emaitza positiboa ematen du. Zenbateko positibo horiek erregularizatuko dira Foru Erakundeak ekitaldia likidatzean.

Kirol Programarako, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren, Gasteizko Udalaren eta Laudioko Udalaren laguntza ekonomikoa izan dugu.

2022an, COVID-19ak eragindako osasun-egoera normalizatu ondoren, normaltasunez garatu ahal izan ditugu programak. Vital Fundazioa bezalako erakundeen finantzaketari esker, "Ahots propioa duten emakumeak" programa gauzatu dugu, eta La Caixa Fundazioari esker "SolyEdad" programa egin ahal izan da, adineko pertsonen nahi gabeko bakardadeak murrizteko. Beste jarduera batzuk ere egiten ditugu, hala nola "Zahartzea" programa, ONCE Fundazioaren laguntzarekin, desgaitasun intelektuala duten adinekoei zuzenduta. Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako enplegu publikoaren eskaintzak modu irigarrian prestatzeko programak Gasteizko enpresen ekarpenak jaso zituen gizarte-erantzukizuneko programaren barruan. Aurten lehen aldiz gauzatu den "Diskultura" kultura-programa, Gasteizko Udaleko Gazteria Sailaren dirulaguntza baten bidez finantzatu da. Eta Once Fundazioak banakako babes-ekipamenduak gordetzeko aretoaren egokitzapena finantzatu zuen.

Nabarmentzekoa da, orobat, Vital Fundaziotik jasotako laguntza, lokalak lagatzeari dagokionez, bai eta Gasteizko, Laudioko eta Barrundiako udalen eta Amurrioko udalen lankidetzeta ere, azken horren etxean eta beste jarduera batzuetan laguntzen baitigu, hala nola irakurketa errazeko klubean. Gure GEE programari atxikitako enpresa eta erakundeek ere eskerrak eman nahi dizkiegu, baita, eta batzuetan anonimotasunetik, ekonomikoki lagundu diguten guztiei ere.

Kontabilitateko egoera-orrien gardentasunari eta zuzentasunari dagokionez, esan behar da 2021eko ekitaldiko kanpo-auditoretza orokorra enkargatu zela, eta BETAENek egin zuela. Txostena bazkideen ohiko batzarrak onartu zuen. Nahitaezkoa denez, Foru Erakundeak berak zehatz-mehatz gainbegiratu du gure kontabilitate guztia.


Era berean, kontuak Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zaizkio, "onura publikokotzat" eta "gizarte-interesekotzat" jo ditugulako.

2022EKO Diru-sarreraren eta gastuen laburpena. Behin-behineko datuak.

Gastuak		Diru-sarrerak	
Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak		Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak	
Arreta Goiztiarreko Zerbitzua	1.110.299,21	Arreta Goiztiarreko Zerbitzua	1.110.299,21
Etxebizitza Zerbitzua	5.285.323,01	Etxebizitza Zerbitzua	5.285.323,01
Aisialdiko eta Partaidetza Sozialeko Zerbitzua	373.315,82	Aisialdiko eta Partaidetza Sozialeko Zerbitzua	375.315,82
Zerbitzu komunen eta asoziatiboen guztizko gastuak		Zerbitzu komunen eta asoziatiboen guztizko diru-sarrerak	
489.923,43		489.889,13	
Gastuak guztira		Diru-sarrerak guztira	
7.258.861,47		7.258.827,17	

2022 zenbakitan


1.808



ERABILTZAILEAK

- Asoziatiboak **712**
- Etxebizitzak **173**
- Aisialdia **235**
- Arreta goiztirra **688**

212



PROFESIONALAK

- Asoziatiboak **11**
- Etxebizitzak **166**
- Aisialdia **10**
- Arreta goiztirra **25**

Usuarios

Asoziatiboak

Familia bazkideak **712**
Elkarrizketak familiekin **385**

Etxebizitza zerbitzu orokorrak 173

Etxeak **90**
Egonaldi laburrak **17**
AVI **42**
Atsedenaldirako pisuak **24**

Aisialdia 235

Gasteiz **179**
Amurrio **19**
Laudio **24**
Arabar Errioxa **13**

Autokudeatzaileak 68

Gasteiz 58
Amurrio 10

Kirola 129

Gasteiz 115
Laudio 14

Arreta Goiztiarra 688

ELKARTEA

2022ko jarduketa nagusiak

Elkartearen 60. urteurrena ospatzea.

Arabako Foru Aldundiaren lan-eskaintza publikoa prestatzeko ikastaroa, Zerbitzu Orokorretako laguntzaile izateko bost lanpostutarako.

Asteburu eta zubietarako bidaien eskaintza handitzea.

"Gurasoak", "Anai-arrebak" eta "Ongizatea" taldeak martxan jarri ditu psikologia-zerbitzuak.

Diskultura programa sortzea, desgaitasun intelektuala duten gazteen parte-hartze eta inklusio kulturalerako.

Desgaitasun intelektuala duten adinekoen nahi gabeko bakardadearen aurkako "SolyEdad" programaren hasiera.

Adineko pertsonetikiko boluntarioritza-proiektua, "Norberaren ahotsarekin bizitzea" elkartearekin lankidetzan.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Apdemaren lehen plana ezartzea.

Elkartearen estatutuak aldatzea, hizkera inklusibora egokituta.



ELKARTE ZERBITZUAK



Familiei laguntzea, informatzea eta entzutea. Horrela laburbiltzen da Apdemaren Elkarte Zerbitzuen helburu nagusia. Horregatik, profesionalen lanaren zati handi bat gure erabiltzaileen familiei laguntza ematean oinarritzen da, funtsezkoak baitira adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen bizi-ibilbidean. Ez bakarrik desgaitasuna duten pertsonen zaintzan, baita haien autonomia eta bizi-kalitatea sustatzeko erreferente pertsonal gisa ere.

Familiei laguntzeko zerbitzuak

Zerbitzu hau desgaitasun intelektuala duen pertsonaren familia-dimentsioan zentratzen da, batez ere elkarrizketa pertsonalaren bidez, eta eguneroko gai zehatzen ebazpena errazteko kudeaketak eginez osatzen da.

Banakako arretak honakoak barne hartzen ditu:

- Adimen-desgaitasunari lotutako gaien inguruko informazioa, orientazioa eta kudeaketa.
- Hasierako ongietorria informazio edo aholkularitza bila elkartera joan diren pertsonen. 2022an 24 bazkide berri sartu dira.
- Prestazio ekonomikoak. Aurreko urteetan bezala, adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako prestazio ekonomikoen eta familia babesteko neurrien gida bat egin da.
- Erakundeen baliabideei eta horiek eskuratzeko moduari buruzko informazioa.



Familiak oso inportanteak dira adimen urritasuna duten pertsonentzat.

Zaindu, lagundu eta autonomia eta bizi-kalitatea sustatzen dute.

Gure elkarteak euren eguneko lanean laguntzen die familiei.

Prestakuntza lanak egin eta ezagutzera ematen dute elkarteak.

APDEMAN, Batzorde izeneko lan-taldeak daude.

Hauk dira APDEMAren batzorde nagusiak:

Eneplugu Batzordea, Okupazio Zentroen Batzordea, Erabiltzaileen Batzordea eta Adinekoen Batzordea.

ELKARTE ZERBITZUAK

- Erabiltzailearen eta haren familiaren datuak biltzea eta eguneratzea. Bazkideen egoera pertsonaletan eta familiarretan izandako aldaketen ondorioz, datuak eguneratuta mantendu dira sistema informatikoan.
- Egoera espezifikoa esku hartzea, hala nola bizi-kalitatearen hobekuntza, familia barruko gatazketan, etorkizunaren plangintza, etab.
- Trantsizio-uneetan laguntzea, hala nola arreta goiztiarreko zerbitzuek hezkuntza-sistemara igarotzean, hezkuntza-sistematik lan-etapara eta okupazio-etapara igarotzean, erretiroa hartzean, egoitza-zentro espezifikoetara sartzean edo bizitza independentean laguntzean.
- Baliabide instituzional batean ere artatuta ez dauden pertsona batzuekin harremanetan egon gara, eta haiekin harremanetan jarri gara haien egoeraren berri izateko.
- Kuota ordaintzetik salbuetsita dauden familien jarraipena egitea, haien egoera ikusteko eta, salbuespenarekin jarraitzen badute, justifikazio-txosten bat egiteko.
- Familia-eskaerak, 8/2021 Legearen erreforma prozesal eta zibilaren aldatetara, egoitzetako gizarte-zerbitzuetara, prestazio ekonomikoetara eta etorkizuneko plangintzara bideratu dira.

Guztira, 2022an, 385 pertsona artatu dira: 287 emakume eta 98 gizon.

Prestakuntza eta zabalkundea

• Hezkuntza-arloko zabalkundea

2022an, GASTEIZTXO programaren barruan, elkarrizketak egin dira Los Herrán, Urkide eta Corazonistas Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako DBHko 3 ikasle-talderekin. Guztira 38 pertsonak parte hartu dute, zehazki 21 neska eta 17 mutilek.

Eta Francisco de Vitoria BHIk ikasleekin lankidetzan jardun du eta APDEMA elkarteari buruzko informazioa eman die 15 pertsonari, 11 emakumeri eta 4 gizoni.

• Familia-taldeak

5 familia-talde ditugu, 3 Gasteizen (ongizate-taldea, anai-arreben eta koinaten taldea eta gurasoen taldea) eta 2 Aiara Haranean (ongizate-taldea eta gurasoen taldea).

Apdemaren batzordeak

• Enplegu-batzordea

Enplegu-batzordea osatzen dute APDEMAren sei erabiltzailek eta enplegu-zentro bereziren bateko (EEE) langileek, APDEMAren erabiltzaileen 4 senidek eta EZB edo enplegu arrunteren bateko langileek, eta APDEMAren bi profesionalak. Helburua lantokietan gertatzen denaren berri izatea da, bai EZBetan, bai enplegu normalizatuetan. 2022an 3 bilera egin dira.

• Zentro okupazionalen batzordea

Okupazio-zentroen errealtateaz informatuta egoteaz arduratzen da, eta APDEMAren erabiltzaileen zazpi senidek osatzen dute Batzorde hau.

• Erabiltzaileen batzordea (Mundua eraikitzen dugu)

Batzordea 2016an sortu zen, eta FEVAS Erabateko Inklusioa Euskadiren "Mundua eraikitzen dugu" izeneko proiektuaren parte da. Proiektu horren helburua adimen-desgaitasuna duten pertsonen beren elkarteetan protagonismo handiagoa ematea da. 2022an, 4 bilera egin dira, eta ohiko bilera APDEMAko Zuzendaritza Batzordeko ordezkariekin.

• Adinekoen batzordea

2019an, APDEMAko adinekoen batzordea jarri zen abian. APDEMAko 45 urtetik gorako pertsonak eta horien senideek osatzen dute. Helburua da une honetan bazkideen gutxi gorabera % 60 baino gehiagoko kolektiboaren premiak biltzea. Gaur egun 7 pertsonak parte hartzen dute, 6 emakumek eta gizon batek. Urtean zehar 3 aldiz bildu dira.

• FEVAS Erabateko Inklusioa Euskadi-ren batzordeak

2022an, Familian Oinarritutako Ikuspegiari buruzko lantaldearekin jarraitu dugu. Gainera, Gaitasun Juridikoko taldean parte hartu da, guztira 4 bilerarekin eta Hezkuntza Batzordeari buruzko bilera batekin.

• **Hezkuntza-jarraipena**

Ikastetxeekin eta Berritzeguneetako gizarte-langileekin harremanetan egon gara, eta Berritzegunearekin koordinatu gara informazio-saio bat antolatuzeko.

• **Etorkizuna prestatzea**

Etorkizuna oso kezka garria da Apdemako familientzat. 2022an, familiei aholkularitza eta informazioa eman zaie gai hauetan: testamentua, kuradoretza eta laguntza-neurriak, egoitza-aukerak, baliabide ekonomikoak, etab.

Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko legeria aldatu ondoren, APDEMAK hitzaldi bat antolatu zuen: "Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa: Erreformaren erronka", desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta senideei informazioa emateko.

• **Erabateko Kalitatea Ebaluatzeko Sistema (SECP)**

2022an, planaren funtsezko gaietan lan egiten jarraitu dugu. Behin autoebaluazio-etapa gainditu eta Hobekuntza Plana aurkeztu ondoren, konpromisoaren etapa egiaztatu dugu eta aipatutako planean lanean jarraitzen dugu bertan jasotako hobekuntza guztiak betetzen saiatzeko.

• **Beste batzuk**

- **Kontu-emateko laguntza.**

2022an, familia askori lagundu zaie kontuak ematen eta gero epaitegian aurkezten; izan ere, pertsona horietako asko adinekoak dira eta zailtasunak dituzte egiteko.

- **Laguntza psikologikoko zerbitzua.**

Desgaitasuna duten Familien eta Pertsonen Premiei buruz 2019an egindako Azterlanaren eskaera nagusietako bat Elkartearen laguntza psikologikoko zerbitzu bat izateko beharra izan zen. Hala, 2021eko urrian jarri zen martxan zerbitzu hori, adimen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien premia psikosozialei erantzuteko. 2022an, laguntza psikologikoko zerbitzuak banakako saioak eta taldeko familia-saioak egin ditu familia-taldeen, Gainera, "Familiaz Familia" izeneko berariazko programa bat garatu du, bai Aiara Haranean, bai Gasteizen.

- **Elkartearen beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa eta esku-hartzea**

Aurreko urteetan bezala, harreman eta lankidetzeta estua izan dugu Arreta Goiztiarreko, Etxebizitza eta Aisialdiko eta Partaidetza Sozialeko zerbitzuekin.

- **Proiektuen arteko koordinazioa**

Apiriletik abendura, "**Emakume Ahots Propiodunak**" proiektua garatu da, Vital Fundazioaren laguntzarekin. 2022an, 14 emakumek garatu dituzte ahalduzarekin lotutako trebetasunak, bizitzaren edozein esparrutan.

Urtariletik uztaiera, 45 urtetik gorako 14 erabiltzailek ONCE Fundazioak finantzatutako **Zahartze Aktiboko Programan** parte hartu dute. Programa hori pertsona horien behar espezifikoari erantzuteko sortu zen.

Urrian, "**SOLYEDAD**" programa jarri zen abian. Zahartze aktibo inklusiboko plan bat da, adimen-desgaitasuna duten 45 urtetik gorako pertsonen nahi gabeko bakardadearen aurkakoa. Guztira 13 pertsonak parte hartu dute: 3 emakumek eta 10 gizonek. Programa hori La Caixa Fundazioaren laguntzari esker gauzatu da.

Urteko azken hiruhilekoan, "**DIS-KULTURA GAZTEAK ON MODUAN**" programa hasi zen. Desgaitasun intelektuala duten gazteen kultur partaidetza eta inklusiorako proiektu hau Gasteizko Udalaren gazteria-arloaren dirulaguntzari esker garatu da. Guztira 27 gaztek parte hartu dute: 17 emakumek eta 10 gizonek.

Urtariletik urrira, **LEP IRISGARRIAK** proiektua egin zen, hau da, adimen-desgaitasuna duten helduentzako lan-eskaintza publikoen hautaprobak prestatzeko programa, Araban aitzindaria dena. Estatuko Administrazio Orokorraren lan-eskaintza publikoan 9 pertsonak hartu zuten parte: 4 emakumek eta 5 gizonek. Eta Arabako Foru Aldundiaren lan-eskaintza publikoan 48 pertsonak hartu zuten parte: 26 emakumek eta 22 gizonek.

2022an, halaber, **Erkidegoko Jardueren** programa koordinatu zen. Programa horretan 83 pertsonak parte hartu dute, bai eta **Jarduera Fisiko-Kirolekoak** ere, Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren bidez.

ELKARTE ZERBITZUAK

Komunikazioa

Zerbitzu honen helburua da Elkarteak iritzi publikoan duen presentzia sustatzea eta sentsibilizatzea, bai eta APDEMA Arabako sarean desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familien alde lan egiten duen elkarte gisa posizionatzea ere.


Zerbitzu honetan garatutako jardueren artean, "Ecos" informazio-buletina nabarmentzen da. Bertsio digitalean, desgaitasun intelektuala duten pertsonen, senideen, teknikariek, boluntarioek eta abarrek elkartearen egunerokotasunari buruzko informazioa ematen dute. Lau hilean behin, inprimatutako bertsio bat argitaratzen da, gure gaurkotasuneko gai garrantzitsuenak dituenak.

Komunikabide sozialei dagokienez, 2022an, Apdemaren webgunean 36.018 bisita jaso dira guztira. Bestalde, Facebook-en 1.639 "Atsegin dut" eman ziren, baina 1.802 pertsonak jarraitzen dute. Twitter-eko kontua, berriz, 882 jarraitzailek osatzen dute.

Aurten, Apdemaren sorreraren 60. urteurrena betetzen zen honetan, Dibilgazio Kanpaina efemeridea ospatzera bideratu da, hura posible egin duten pertsona, erakunde eta enpresa guztiakin, ekitaldi-programa baten bidez, hala nola: 60. urteurrenoko jaia, elkartekideentzat, uztailearen 9an; 60. urteurrenoko erakusketa, 2022ko irailaren 2tik urriaren 9ra, Gasteizko Vital Fundazioaren erakusketa-aretoa; 60. urteurrenoko gala, azaroaren 19an, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian; eta hamaiketako solidarioa, Laudion, azaroaren 27an.



Elkarte zerbitzuen egitura



ETXEBIZITZA ZERBITZUA



APDEMAK etxebizitza-zerbitzua garatu eta kudeatzen du, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren bidez. Bere jarduera hiru bloke handitan banatzen da: Talde Etxeak, Bizitza Independentearen Aldeko programa eta Atsedernaldi programa.

Zerbitzuaren helburu nagusia adimen-desgaitasuna duten pertsonen eguneroko bizitzaren kalitatea hobetzea da, etxeari eta dagokion komunitate-inguruneari dagokienez. Horretarako, erabiltzailearen zoriontasuna bultzatu nahi dugu, etxean eta komunitate-ingurunean ahalik eta autonomia-mailarik handiena garatu eta/edo mantendu, eta erabiltzailearen bizi-estiloa normalizatu, erabiltzailearen nahi pertsonalen eta ingurune komunitarioaren arabera.

Lan-filosofia hori pertsonari zuzendutako plangintzan oinarritzen da, eta bizi-kalitatean eta laguntzak ematean jartzen du arreta. Hori dela eta, gure lana banakakoa da, eta artatzen dugun pertsona bakoitzari erantzun pertsonalizatua ematen saiatzen gara.

Zerbitzuaren jarduera probintzia osora hedatzen da. Zehazki, hamaika talde-etxe ditu. Gainera, Atsedenerako programak etxebizitza bat du Gasteizen, baina Araba osoko familiei laguntzen die. AVI programak, aldiz, Gasteizen, Oionen eta Laudion artatzen ditu pertsonak.



Etxebizitza zerbitzuak etxea eskaintzen dio etxerik ez duenari, eta modu independentean bizi nahi duten pertsoneri laguntzen die. Komunitateko ekintzetan parte hartzen ere laguntzen du. APDEMAK taldeentzako 7 etxe kudeatzen ditu Gasteizen,

2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrian.

Egonaldi laburrak ere eskaintzen ditu APDEMAK, kasu puntualetan.

Eta eskola-adinean dauden neska-mutilen familiek atsedeen programaz goza dezakete asteburuan.

ETXEBIZITZA ZERBITZUA

Baliabideak

Talde etxeak

Gehenez ere adimen-desgaitasuna duten 10 pertsona artatzen dituzten etxebizitza-baliabideak dira. Iraunkorrak dira, eta estaldura osoa eskaintzen dute, hau da, urte osorako. Programa horietan banakako laguntza-programak ematen dira, betiere dagokion komunitate-ingurunearekin koordinatuta. APDEMAk 11 etxe kudeatzen ditu: 7 Gasteizen, 2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrión.

Egonaldi laburrak

Talde-etxe batean egotekoaldi laburrak dira, eta desgaitasuna duten pertsonen erabiltzen dituzte urteko sasoi desberdinetan. Senideen premia bereziek edo pertsonen premiazko egoera puntualek eragin ohi dituzte. Aurten, 17 pertsonak erabili dute baliabide hori.



Zerbitzua Egonaldi kop. Pertsona kop.			Egun kop.
Easo	3	1 (0 emakume - 1 gizon: 27 urte)	402
Foronda	8	3 (0 emakume - 3 gizon: 42, 44, eta 45 urte)	58
Laudio	16	3 (1 emakume: 31 urte - 2 gizon: 49 eta 53 urte)	144
Mariturri	3	5 (1 emakume: urte - 4 gizon: 18, 30, 37 eta 43 urte)	17
TOTAL	30*	17	621

(*):Egonaldien guztizko kopurua ez dator bat etxebizitza bakoitzeko pertsona kopuruarekin, pertsona batzuek egonaldi laburrak egiten dituztelako.



Atsedernaldi programa

Familiiei laguntzeko programa bat da, eta eskola-adineko desgaitasun intelektuala duten haurrak dituzten familiiei asteburuetan eta oporraldietan atsedena ematea du helburu.

Atsedenerako programak etxebizitza bat du Gasteizen, eta urteko asteburu guztietan funtzionatzen du, ostiral arratsaldetik astelehen goizera. Gainera, bost eguneko egonaldiak ere eskaintzen ditu oporraldietan (Aste Santua, San Prudentzio edo uda). 2022an, 10-21 urteko 24 haur artatu dira guztira (7 neska eta 17 mutil). Aurten familia batek baja eman du adinagatik, eta 5 familia sartu dira urtean zehar.



AVI PROGRAMA (Bizitza Independentearen Aldekoa)

Programa honek laguntza, orientazioa eta babesa ematen die desgaitasun intelektuala duten pertsoneri, baldin eta modu independentean bizitzea erabakitzen badute eta beren kabuz ase edo konpondu ezin dituzten premiak edo gabeziak badituzte alderdi jakin batzuetan. Aurten, zerbitzuak desgaitasun intelektuala duten 42 pertsona artatu ditu, bakarrik bizi direnak (5 emakume eta 6 gizon), pentsioetan (emakume 1 eta gizon 1), familiarekin edo bikoteki-dearekin partekatutako pisuan (21 pertsona), lagunekin partekatutako pisuetan (7 pertsona) edo beste batzuekin (pertsona 1).

ETXEBIZITZA ZERBITZUA

Zerbitzuaren egitura

Talde-etxeak	
Batzarrak	Foronda
Mariturri	Urbasa
Oion	Easo
Laudio	Amurrio
Zapardiel	Las Losas
Saracibar	

Programak
AVI
Atsedaldia

Talde etxeak



Pertsonak: **90**
Profesionalak: **98**

Egonaldi laburrak



Pertsonak: **17**
(15 egonaldi labor)
Profesionalak: taldeen-
etxeetako profesional berberak
babesten eta zaintzen dituzte

AVI programa



Pertsonak: **42**
Profesionalak: **8**

Atsedaldia programa



Pertsonak: **24**
Profesionalak: **5**

Etxebizitzak: 2022ko Jarduketa Plana



2022ko ekintza nabarmenak

PERTSONARI ZUZENDUTAKO ZERBITZU BATI DAGOKIONEZ

- Banaka, etxebizitzaren erabiltzaileen behar espezifikoak erantzuteko beharrezkoak diren Esku-hartze Plan Bateratuak (EPB) egin dira, eta lehendik zeudenak berrikusi eta eguneratu dira. EPB globalei dagokienez, etxebizitzetan gaur egun daudenak hobetu dira, jarduteko irizpideak bateratzeko eta erabiltzaileen banakako denbora ziurtatzeko.
- Banakako laguntza-planak eguneratzea, eta profil pertsonalak berrikustea eta eguneratzea.

ZAHARTZEARI BURUZKO EKINTZA INTEGRALEKO PLANARI DAGOKIONEZ:

- 45 urtetik gorako pertsonen narriadura kognitiboaren mailaren neurketa berria.
- Narriadura kognitiboaren diagnostikoa duten pertsonen jarraipen espezifikoak.

COVID-19 PANDEMIARI DAGOKIONEZ:

- Kontingentzia-plana eguneratzea eta haren jarraipena egitea.
- COVID-19 protokoloa eguneratzea eta haren jarraipena egitea.

PROZEDUREI DAGOKIENEZ:

- Atsedalddi programako agur-protokoloa eguneratzea.
- Ongietorri- eta ekonomia-protokoloa berrikusi eta eguneratzea.




AISIALDIKO ETA PARTAIDETZA SOZIALEKO ZERBITZUA

Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Lankidetzaren bidez finantzaturakoak, aisialdiko esperientziak eskaintzen ditu erabiltzaile guztientzat, Arabako herri eta auzoetan, kultura-, jolas- eta kirol-eremuetan.

APDEMAren aisialdiko eta gizarte-partaidetzako zerbitzuaren eginkizuna, Erabateko Inklusioeko esku-hartze esparruaren balioekin bat etorritik, adimen-desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitateko proiektua hobetzen laguntzea eta aisialdiko ingurune komunitarioak eraldatzen laguntzea da, baliabideak, laguntzak, sareak eta aukerak eskainiz eta sustatuz, pertsona bakoitzak bere aisiaz komunitatean goza dezan eta komunitateak partaidetzan berdintasuna berma dezan.

Horretarako, honako helburu orokor hauek planteatzen dira:

- Erabiltzailearen zorientasuna sustatzea.
- Aisialdiaren eta komunitate-ingurunearen eremuan ahalik eta autonomia-mailarik handiena garatzea eta/edo mantentzea.
- Pertsonaren aisialdi-estiloa normalizatzea, haren nahi pertsonalen eta mugitzen den ingurune komunitarioaren arabera



Aisia Zerbitzuak aisia erabilgarri eta onuragarriaren aldeko apustua egiten du. Hiriko kultur, kirol eta aisia eskaintzaz gozatzen dugu. Aisia zentro eta programetan, denbora libre pasatzeko lagunak eta taldeak egiten dira.

Oporretan, bidaiak antolatzen dira kostara, edo bisita kulturalak hiri eta herrietara. Aisian kirola egitera ere animatzen dugu.

AISIALDIKO ETA PARTAIDETZA SOZIALEKO ZERBITZUA

Aisialdiko zentroak eta programak

Elkartzeko, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta harreman pertsonalak eta taldekoak sustatzeko tokiak dira.

Haien eskaintzak argi eta garbi bereizitako espazioak ditu. Animazio soziokulturaleko eta pintxopoteko tailerrak, astean zehar. Eta jarduera inklusiboak komunitatean eta aisialdi-zentroan asteburuetan. Beste jarduera zehatz batzuez gain, Pazko, Udako eta Eguberrietako programa espezifikoak eta Kirol Programa.

2022an, Gasteizko aisialdi-zentroak tailer hauek egin ditu: marrazketa, irakurketa-idazketa, erlaxazioa, gorputz-adierazpena, pilates, sukaldaritzak, antzerkia, dantza latindarrak eta zumba. Osasun-egoera hobetzearekin batera, 2022ko otsailean berriro ekin zitzaizkien pintxopoteei. Eta joan den ikasturteko harrera onaren ondoren, bisita gidatuak egin ziren Gasteizko Eskulturen Ibilbideetan, zeinak autokudeaketa-taldeek eskaintzen baitzizkiete zentrokideei.

Urtearen amaierarako, 179 bazkidek, 11 boluntariok eta 11 jarduera-teknikarik hartu dute parte.

Laudioko eta Amurrioko Gazte Alaiak zentrok eta Arabako Errioxako aisialdi-programak ere jarduera handia garatu dute, eta bertaratze-ehunekoa eta gogobetetze-maila oso handiak izan dira. Amurrioren 19 bazkidek, 17 boluntariok, tailerretako teknikari batek eta aisialdiko espezialista batek hartu dute parte. Laudion, berriz, 24 bazkidek, 5 boluntariok eta aisialdiko espezialista batek.

Azkenik, Arabako Errioxako Programan 13 bazkidek hartu dute parte jardueretan, 6 boluntarioren eta aisialdiko espezialista baten laguntzarekin.



Opor programa

2022an, Aisialdiko eta Partaidetza Sozialeko Zerbitzuak udako aisialdiko alternatiba erakargarriak diseinatu zituen, eta horiek oso harrera ona izan zuten Apdemaren erabiltzaileen artean.

Lurralde historiko osorako opor-eskaintza berria modalitate hauetan banatu zen: Lasaitasuna naturan, Ipar kostaldea, Mediterraneoko kostaldea/Irla, Turismo aktiboa, Kirol-jardunaldiak, Kirol-ihesaldia eta Kultura-jarduerak. Guztira, 112 lagunek hartu zuten parte, 32 laguntzaileekin.

Bestalde, 30 erabiltzailek parte hartu zuten Aiara Haraneko udako programa berezian, 9 boluntarioren laguntzarekin.

Gabonetako eta Pazkoko programa bereziak

Aurten, Pazko Astean, bidaiak eskaini dira Laredo eta Tuterara, eta IMSERSO programaren barruan, Valentzia eta Saloura. Jarduera gisa, Gasteizen goizez eta arratsaldean egin ziren Paseoak eta Jarduerak. Bidaietan 47 pertsonak parte hartu dute, eta jardueretan Vitoria-Gasteizen, 30.

Gabonetako programa bereziak Gasteizko aisialdi-zentroko jarduerak eta aisialdi inklusiboko jarduerak konbinatu zituen. Guztira, 357 lagunek hartu zuten parte, 60 laguntzailearen laguntzari esker.

Kirol programa

APDEMA Kirol Elkarteak astero kirol-jarduerak eskaintzen ditu denboraldi bakoitzean, eta, horrela, gizarte-errentagarritasun handia lortzen da.

2022an, Gasteizko 115 kirolarik parte hartu dute kirol-modalitate hauetan: igeriketa, aerobica, areto-futbola, mantentze-gimnasia, taichi/yoga eta mahai-tenisa, 14 profesionalen laguntzarekin. Laudion, berriz, 14 kirolarik parte hartu dute 2 kirol-diziplinatan, 3 entrenatzailearen laguntzarekin.

Kirol-lehiaketek dagokionez, nabarmentzekoa da 4 igerilarik parte hartu zutela Espainiako Igeriketa Txapelketan (FEDDI). Kirol Egokituaren Euskal Federazioaren igeriketa-ligari ere heldu zaio, eta Judizmendi Igeriketa Klubarekin lankidetzan jarraitu da.

Areto-futbola dela-eta, Euskadiko ligan eta San Prudentzio Txapelketan parte hartu zen. Futbol inklusiboari dagokionez, Royal Gasteiz taldeak Arabako Futbol Federazioaren egutegian parte hartu zuen.

Boluntarioak

Boluntarioen hainbat taldek, APDEMAko aisialdiko espezialisten laguntzarekin, aisialdiko zentroyen eta programen jarduera-programak dinamizatzen dituzte astegunetan eta asteburuetan.

Pandemiaz geroztik, boluntarioen parte-hartzea nabarmen jaitsi da, eta, gaur

egun, Aisialdiko eta Partaidetza Sozialeko Zerbitzuaren lehenetsunezko helburuetako bat boluntarioak aktiboki bilatzea eta mantentzea da. Horretarako, 2022an bi boluntario-topaketa antolatu ziren. Halaber, prestakuntza-proposamenak eskaini zaizkie boluntarioei, helburu dugun arreta pertsonalizatua eta kalitatezkoa ahalik eta gehien hobetzen saiatzeko. 2022an, APDEMAko 39 boluntarioen taldea honela banatu da: 11 Gasteizen, 22 Aiaa Haranean eta 6 Arabako Errioxan.

Irakurketa errazeko klubak

2014-2015 ikasturtean, APDEMAk Irakurketa Errazeko Klubak elkarte-jarduera jarraitu gisa finkatu zituen, irakurtzeko eta kulturarako eskubidea desgaitasun intelektuala duten pertsonen hurbiltzeko helburuarekin.

2022an, adimen-desgaitasuna duten pertsonen irakurketa errazeko 6 klub kudeatzen jarraitu da. 3 Gasteizen, Pilar eta Iparralde gizarte-etxeetan eta Ignacio Aldecoa Kultur Etxean; eta 3 Amurrian, Amurrioko Kultur Etxean.

Gasteizen, adimen-erabatikotasuna duten 12 pertsonak hartu dute parte klub bakoitzean, eta Amurrian, berriz, 8k. Irakurketa Errazeko klubeko saioak, berriz, hiruhileko batekoak, 10 izan dira Gasteizen eta 8 Amurrian.

Autokudeaketa programa

Gaur egun, Autokudeaketa Programan 68 pertsonak hartzen dute parte (37 emakume eta 31 gizonek). Kopuru hori mantendu egin da 2022an, 2021eko azken hiruhilekoan sei langile berri sartu baitziren.

Talde guztietan izandako bileretara bertaratutakoen batez bestekoa % 93 izan da. Parte-hartzaileek banakako arretako 292 saio jaso dituzte guztira.

Beste jarduera aipagarri batzuk honako hauek izan dira: "Quedamos" taldea, "10.000 urrats" herritarren proposamena, Udalaren zurrumurruren aurkako topaketa, Fevas erakundearen irisgarritasun kognitiboko taldea, FEVAS - Erabateko Inklusiorako Plataformaren (Erabateko Inklusio Talde Eragilea) "Gure ahotsa" batzordea, Erabateko Gizarteratzeko Kongresua, "Mundua eraikitzen dugu" batzordea, Enplegu batzordea, "Oporrak gure kabuz", Gurutzeko Gorriko boluntarioak, Boluntariotzaren eskualde-azoka, Grañongo aterpetxearen 25. urteurrena, "Norberaren ahotsarekin bizi" elkartearekin lankidetzan adinekoekin boluntariotza-proiektua, etab.

AIKIALDIKO ETA PARTAIDETZA SOZIALEKO ZERBITZUA

Aisia zentroak eta programak



Gazteiz

Erabiltzaileak: **179**

Profesionalak: **11**

Boluntarioak: **11**

Amurrio

Erabiltzaileak: **19**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **17**

Laudio

Erabiltzaileak: **24**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **5**

Arabar erroixa

Erabiltzaileak: **13**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **6**



Oporrak

Parte-hartzaileak: **112**

Monitoreak: **32**



KIROLA Gasteizen

Kirolariak: **115**

Kirol-taldeak: **15**

Kirol-modalitateak: **6**



Boluntarioak

Gasteiz **11**

Laudio **5**

Amurrio **17**

Arabar Errioxa **6**



KLUBAK FT

Gasteiz Taldeak: **3**

Amurrio Taldeak: **3**



Bidaiak

Parte-hartzaileak: **47**

Monitoreak: **12**

KIROLA Laudion

Kirolariak: **14**

Kirol-taldeak: **2**

Kirol-modalitateak: **2**

Autokudeaketa

Gasteiz Taldeak: **4** Parte-hartzaileak: **58** Bilerak: **76**

Amurrio Taldeak: **1** Parte-hartzaileak: **10** Bilerak: **19**



Pazko eta Gabonetako programa bereziak

Parte-hartzaileak: **387**

Monitoreak: **70**

KIROLA Autonomia-Estatu mailako txapelketak

Txapelketak: **10**

Kirolariak: **20**

Monitoreak-Entrenatzaileak: **3**

Kirol-modalitateak: **2**

A woman with long brown hair, wearing a grey sweater, is leaning over a table. A young child in a brown jacket is sitting at the table, interacting with various educational toys. On the table, there are several green bowls, a yellow pitcher, and some wooden blocks. The background is a plain wall.

ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZUA

Garapenean zailtasunak dituzten edo izateko arriskua duten 0-6 urteko haur guztiak eta haien familiak lekua dute gure Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan. Hauek dira gure zerbitzuaren helburu nagusiak: haurraren gaitasunak ahalik eta gehien indartzea, haren gizarteratzea sustatzea, haurra eta haren familia ingurunera egokitzen laguntzea eta prebentzioz jardutea. Horretarako, 45 minutuko banakako edo taldeko saioak egiten dira, non familiak parte hartzen duen eta laguntza eskaintzen zaion behar duen guztietan.


Arreta zuzena

Guztira 688 haur artatu dira (477 haur Arreta Goiztiarreko Zentroan). 201 neska eta 487 mutil.

- **Estimulazio Orokorra Arreta Goiztiarrean**

Estimulazio orokorrean 411 haur artatu dira, honela banatuta:

- 260 hurrek estimulazioa baino ez zuten jaso
- 22 hurrek fisioterapia/estimulazioa jaso zuten
- 85 hurrek logopedia/estimulazioa jaso zuten
- 44 hurrek estimulazioa/logopedia/fisioterapia jaso zuten



Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, garapen arazoak dituzten edo halakoak eduki ditzaketen 0-6 urteko neska-mutilak artatzen ditugu. Estimulazio, Fisioterapia eta Logopedia zerbitzuak eskaintzen ditugu. Haur horien familiak ere artatzen ditugu eta lagundu ere egiten diegu,

ongiotorria ematen diegu Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, eta euren haurtxoei laguntzen erakusten diegu. Gurasoek parte har dezakete saioetan.

ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZUA

• Fisioterapia Arreta Goiztiarrean

Fisioterapiari 135 haur artatu dira, honela banatuta:

- 64 haurrek fisioterapia baino ez zuten jaso
- 23 haurrek fisioterapia/estimulazioa jaso zuten
- 4k fisioterapia/logopedia
- 44k fisioterapia/logopedia/estimulazioa

• Logopedia Arreta Goiztiarrean

Arreta goiztiarrera jotzen duten haurrek dituzten premien aniztasunarekin bat etorri, hizkuntzaren errehabilitazio espezifikoa behar duten kasuei erantzuteko, lankidetzaz hitzarmen bat mantentzen da ADARE eta TIPI zentroekin, Arabako Foru Aldundiko Ikuskaritza Zerbitzuak egiaztatuta. 211 haur bakarrik logopedia-saioetara joan dira; 85ek logopedia-saioak eta zentroko estimulazio-saioak konbinatu dituzte; 4 haurrek fisioterapia eta logopedia jaso dituzte; eta 44k estimulazio, logopedia eta fisioterapia; guztira 344 haur artatu dira.

Arreta goiztiarreko logopediaren esku-hartzea hiru eremu nagusitan egin behar da:


HAURRARENTZAKO ETA FAMILIARENTZAKO ARRETA

Esku-hartze mota Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT) zehazten du, eta kasu bakoitzaren bilakaeraren jarraipena egiten du.

Haurrek dituzten premien aniztasunaren arabera, esku-hartzea modu konbinatuan edo independentean eman daitezkeen hiru esparrutan garatzen da: garapenaren estimulazio orokorra, fisioterapia eta logopedia.

“LAGUNTZA TEKNIKOAK” EMATEA:

Saioez gain, igeltsuzko egokitzapenak egiten dira (eserleku moldeatuak, bipedestadoreak, standinga, etab.); altzarien egokitzapenak; kinesiotaping-bendak (funtsezko esku-hartzeak haurren eguneroko bizitzan jarrera-higiene ona izateko eta eskolan nahiz etxean sartzeko eta parte hartzeko). Urte honetan zehar 87 egokitzapen egin dira. Gainera, familiek egindako dohaintzei esker, mugimen-errehabilitaziorako ariketa-makinak gehitu dira (martxa motel eta azkarreko zinta, bibrazio-makina, zabu bestibularra eta ohe elastikoa), eta oso emaitza positiboak lortzen ari dira.



FAMILIENTZAKO ARRETA ETA AHOLKULARITZA

Familiek harreman zuzena dute seme-alabei arreta ematen dieten profesionalekin, esku-hartze prozesu osoan inplikatzeko lagunduz.

Familia laguntza

Gurasoei harrera egitean eta sentimenduak adierazteko, ezagutzak eskuratzeko eta jarduteko jarraibideak ikasteko espazio bat eskaintzean datza laguntza. Bi motatako laguntza eskaini da: harrera eta banakako laguntza. Hala, 2022an, 197 familia hartu dira zentroan, eta banakako laguntzako 120 esku-hartze egin dira.

Koordinazioa


Funtsezkoa da bertara joaten diren haurren esku-hartzean inplikaturako zerbitzu guztien arteko koordinazioa, hazteko aukerak optimizatzeko. Aurten, taldeko barne-koordinazioa 40 bilera egin dira asteen. Kanpo-koordinazioari dagokionez, 480 koordinazio egin dira ikastetxeekin, 60 gizarte-zerbitzuekin, 68 zentro pribatuekin, 70 mediku espezialistekin, 6 ikusmen-desgaitasuna duten ikasleak gizarteratzeko baliabide zentroarekin, eta 19 bilera GOFEn balorazio-taldearekin.



Ondorioak

Aurten ere, arreta goiztiarrean arreta jaso duten beharizan bereziak dituzten haurren kopuruak nabarmen egin du gora, eta, beraz, zentroaren arreta-ordutegia luzatu behar izan da esku hartzeko eskaera guztiei erantzuteko. Funtsezkoa da azpimarratzea garrantzitsua dela haurra bere osotasunean ulertzea (haurra-ingurunea-familia), eta harekin harremana duten sistema guztien arteko koordinazioa dagokion lekuan jartzea.

Egindako egokitzapenen adibideak



Triziklo egokituak

Standing txikia

Aulki egokitua Bipedestadorea

Arreta goiztiarra

Haurrak: **688**

Profesionalak: **25**

Familiak: **197**

Esku-hartzeak

Estimulazio orokorra: **411 niños/as**

Fisioterapia: **135 niños/as**

Logopedia: **344 niños/as**



Laguntzaileak:

ERAKUNDEAK:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENTITATEAK:



FUNDACIÓN
FUNDAZIOA



AYUNTAMIENTO
Elciego
Zieko
UDALA



Ludio
Llodio

LUDIO BAR NOBLEAREN UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO



AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Barrundiako Udala 



Ayuntamiento de LEGUTIO
LEGUTIOKO Udala

ENPRESAK:



imesaza



Fournier



Loramendi